


Otsailak 2.

HEZEGUNEEN MUNDUKO EGUNA:

"Hezeguneeek ura zaintzen dute"



HARITZALDE
Naturzaleen Elkartea

Datorren otsailaren 2an, urtero bezala [Hezeguneen Nazioarteko eguna](#) ospatuko da mundu mailan eta aurtengo leloak dio: "**Hezeguneeek ura zaintzen dute**", ura eta bere kalitatea hezeguneeekin duen lotura estua azpimarratuz. Nazio Batuek, UNESCOrekin lankidetzan, "*Uraren Esparruko Lankidetzaren Nazioarteko Urtea*" izendatu dute **2013a**.

Haritzalde Naturzaleen Elkartek 20 urte bete berri ditu eta sorreratik, 1992an Donostiako azken paduren suntsiketaren aurka aritu baitzen, hezeguneen defentsa sutua egin du eta urtero aldarrikatu du nazioarteko egun honetan hezeguneen eta uraren garrantzia. Aurten 2 ekintza antolatu ditugu eguna eta gure urteurrena ospatzeko eta **herritarroi gurekin parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diegu:**

- **Otsailaren 2an, 10:00etan Sarian. AUZOLANA. Oria ibaian, Usurbilgo Sariako paduraren garbiketa.** Ibai ertzean ibiltzeko arropa egokia eramatea komeni da.

Erabili garraio publikoa, iristeko **erabili autobusa**, Sarian ez dago eta tokirik autoa uzteko!

Usurbilgo Udalaren babesaz burutuko da: eskularruak eta plastikozko poltsak emango dizkigu, eta gero gaikako zabor-bilketaz arduratuko da.

Helburuak: geratzen zaizkigun azken hezeguneen garrantzia eta suposatzen duten oparia aditzera ematea, batez ere estuariak (herrioak) eta padurak. Sortzen dugun zaborra eta kutsatzen dugunari buruzko gogoeta bultzatzea. Auzolana, elkarrekin posible da.

Zer dira hezeguneeak?

Hezegunea da ura agertzen den inguru bat; geldirik egon daiteke ura, edo ez; urtean zehar iraun dezake urak, edo ez; gatzak izan dezake urak, edo ez. Baina hezeguneeak biodibertsitatearen iturri dira, bai ala bai; edateko ura lortzeko bide dira, bai ala bai; uholdeak ez gertatzeko egokiak dira, bai ala bai; elikagai-iturri dira, bai ala bai.

Hezeguneeek sari ugari ematen diote gizakiari, eta **Sariako hezegune interesgarria sari bikaina da usurbildarrentzat zein gipuzkoarrentzat**. Oria ibaiaren amaiera aldean

kokatua, meandroen artean, historiaz betetako txokoa, balio naturalez betetako gunea dugu. Saritu dezagun, ibaia garbi mantenduz.

Hezeguneei buruzko informazio gehiago, hemen: www.ramsar.org

Ekitaldiari buruzko informazio gehiago, hemen: www.haritzalde.org

Autobusei buruzko informazioa, hemen: www.lurraldebus.net

- **Otsailaren 3an, 11:00etan . Igeldoko kanpineko autobus geltokian.** Mendi ibilaldia: "*Mendizorrotzeko hezegunak: Igeldoko igelxoaren bizilekuak ezagutz*".

Helburuak: Hezegune txikiek (putzuak, zohikaiztekiak, idoiak...) biodibertsitateari begira duten garrantzia azpimarratzea. Hegoaldeko zuhaitz-igela eta duen egoera ezagutzera ematea.

[Hegoaldeko zuhaitz-igela](#) edo Igeldoko igela, izar mediatikoa izanik itzal handia sortu du eta bere gerizpean zenbait animaliak eta landare espezie ugari babesa aurkitzen dute. **Putzuak, hezegune txikiak izanik ere, biodibertsitate gordailuak dira.** Ibilaldi baten bidez, horien haunditasuna ezagutuko dugu. Haritzaldeko Xabier Rubioren eskutik. Izena-ematea beharrezkoa da, parte-hartzaile kopuru mugatua.

Informazio gehiago eta izen-ematea, hemen: 943 453 526/ cristinaenea@donostia.org

www.cristinaenea.org



Haritzalde Naturzaleen Elkarte

P^a Anoeta 28, 1.

20014-Donostia

Gipuzkoa

900 110 111 / 609 420 438

naturzale@haritzalde.org

www.haritzalde.org